



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2017KO AZAROAREN 16AN EGINIKO EZOHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Jesus Peñagarikano Labaka
Jon Mikel Iglesias Otegui
Irati Ozaita Azpiroz
Arkaitz Fraile Quijera
Maria Iciar Jauregui Huarte
Eleuterio Sanchez Garcia
Victoria Rodriguez Feloaga

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hamazazpiko azaroaren hamaseian** arratsaldeko seiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ezohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

LEHENA:

1.- DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 2. ZENBAKIKO EPAITEGIAREN 3/2017-B BETEARAZPENA, JATORRIZKO PROZEDURA ARRUNTA 24/2014KOAREN INGURUKOA.

2017KO URRIAREN 31N Donostiako Administrazioarekiko auzien 2zk. ko epaitegiak 435/2017 autoaren berri ematen dio Ibarra Udalari. Bertan honakoa adierazten da:

2017/11/16



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016ko uztailaren 28an 148/206 (JO 24/14) sententzia eman zuen Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2.zenbakiko epaitegiak. Bertan, Juan Jose Huerta Quintanilla jaunak jarritako errekurtoa guztiz onartu zen eta honen ondorioz 2016ko abenduaren 1ean udal aparejadoreak eginiko txostena aintzat harturik, Ibarra Udalak, 2017ko urtarrilaren 12an eginiko Udalbatzen erabaki zuen 396/2013 Alkate Dekretuaren inguruan berrikuspen espediente bat irekitzea (Andone Zabala Ezeiza andreaki txoko aktibitatea burutzeko lizentzia baten inguruko espediente alegia).

2017ko martxoaren 13an Ibarra Udalbatzak Andone Zabalak aurkezturiko alegazioak onartu zituen eta, ondorioz, 392/2013 Alkate Dekretuaren deuseztapena deklaratu zuen (148/2016 sententzian oinarriturik) ; ondorioz, txoko erabilera ahalbidetzen duten elementuak kentzea eta modu ez egokian ezarritako material eta instalazioak kentzea eskatzen zen (sukaldeko tresnak eta altzariak alegia).

435/2017 autoaren bidez Auzitegiak argi uzten du Ibarra Udalak 148/2016 sententziaren betearaztea modu ez egokian burutu duela. Sententzian esandakoa gainditu du eta auzian tratatu ez ziren gaiak (txoko izaera ahalbidetzen duten elementuak zeintzuk diren esatea eta ken araztea) aplikatu dituela, sententzia hori oinarritzat hartuta. Beraz, ez da sententzia dagokion bezala betearazi. Ondorioz, exekuzioan inzidentzia onartu du auzitegiak eta Udalak 2017ko martxoaren 13an ez-ohiko bilkuran onarturiko erabakia deusez deklaratzeko eta Udala behartzen du sententzian esandakora mugatzea betearazpena, hau da: aktibitatearen lizentzia deusez deklaratzeko, aktibitatea etetea eskatzea eta soilik horretara mugatzea udalaren erabakia.

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. Zenbakiko epaitegiak esandakoa kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: EZEZTATZEA 396/2013 alkate dekretua, 2013ko martxoaren 8koa, zeinaren bidez Andone Zabala andreaki irekitze lizentzia ematen zaion. Horren oinarria da 2016ko uztailaren 28ko 148/2016 epai irmoa, 24/2014 administrazio-azietako errekurtoaren baitan eta Donostiako Administrazio Auzien 2 epaitegiak emana.

BIGARRENGOA: EZEZTATZEA 2017ko martxoaren 13an Ibarra Udalbatzak ez-ohiko bilkuran harturiko erabakia.

HIRUGARRENGOA: AGINTZEA Andone Zabala Ezeiza andreaki txoko/etxebizitza erabilerarik ezingo duela egin.

2017/11/16



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea interesatuei (Andone Zabala Ezeiza andreari eta Juan Jose Huerta Quintanilla jaunari) eta Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. Zenbakiko epaitegiari.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko seiak eta hamabost direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2017/11/16

3